

## Nola transmititu daiteke GIBa



- Baginako, uzkiko edo ahoko harreman sexualak babesik gabe izan dituzunean GIBa duen pertsona batekin edo GIBa daukan edo ez argi ez duzunean.
- Xiringak edo drogak hartzeko beharrezkoak diren beste material batzuk partekatatu badituzu.

## Zergatik egin GIBaren proba?

- Arrisku-praktikak izan badira, GIBa daukazu jakiteko modu bakarra proba espezifiko bat egitea da.
- GIB infekzio sendaezina bada ere, badira infekzioak aurrera egitea eragozten duten eta immunitate-sistemaren narriatzea ekiditen duten tratamenduak, bizi-kalitate onarekin bizitzea ahalbidetzen dutenak.
- Gainera, tratamenduan dauden eta birus-karga hautemanetzina duten GIBdun pertsonak ez dute birusa transmititzen beren harreman sexualetan.

## Zer da GIBaren proba azkarra?

- Giza Immunoeskasiaren Birusaren (GIB) aurkako antigorputzen eta/edo antigenoen presentzia detektatzen duen proba bat da.
- Emaizta 20 minututan lortzen da, gutxi gorabehera.



## Nola egiten da GIBaren proba azkarra?

- Hatzean ziztada txiki bat egiten da, odol-tanta batzuk lortzeko.
- Odol kantitate txiki hori tira errektibo batean jartzen da.
- 20 minutu igaro ondoren, tirak emaitza errektibo bat erakutsiko du (balizko positiboa, berretsi egin behar da) edo ez errektiboa (negatiboa).

## Zer da leiho-aldia?

- Infekzioaren unetik antigorputzak eta/edo antigenoak agertzen diren arte igarotzen den denbora da.
- Proba azkarren leiho-aldia 3 hilabetekoa da. Une horretatik aurrera bakarrik joko da fidegarritzat emaitza.
- Azken arrisku-praktikatik 3 hilabete igaro baino lehen egiten bada proba, denbora hori igaro ondoren errepikatu egin behar da.




## Zer esan nahi du emaitza ez-erreaktibo edo negatibo batek?

- Ez duzula GIBa, baldin eta azken praktika arriskutsutik gutxienez 3 hilabete igaro badira.

## Zer esan nahi du baieztatzeke dagoen emaitza errektibo edo positibo batek?

- Emaizta errektibotzat hartzen da kontrol-leihoan lerro gorri bat eta antigorputzen eta/edo antigenoen leihoan lerro gorri bat agertzen direnean.



## Nola prebenitu GIBa?

- Preserbatiboa sistematikoki erabili harreman sexual guztietan.
- Arrisku puntualeko praktika baten kasuan, esposizio osteko profilaxi-tratamendua eska daiteke lehen 72 orduetan, ospitaleko larrialdi zerbitzuan.
- Arrisku-praktikak behin eta berri izanez gero, esposizioaren aurreko prebentzio-profilaxi programa (PrEP) neurri eraginkorra dela frogatu da.

## Zer esan nahi du GIBarekin bizi behar den pertsona izateak?

- Proba azkarreko emaitza errektiboa baieztatzen bada, zer esan nahi du horrek?
- GIBak eragindako infekzioa daukazu eta honek ez duela behin betiko sendaketarik, baina badaude osasun-egoera onarekin eta gainerako pertsonen antzerako bizi-itxaropena izateko aukera ematen duten tratamenduak.
- Garrantzitsuena da zeure burua profesional sanitarioen esku jartzea eta adierazten dituzten jarraibideak zorrotz betetzea.

Arrisku-praktikak izan badituzu, egin GIBaren proba



## ¿Qué es la PRUEBA RÁPIDA del VIH?

Mayo 2025

